

¡A ZÉR BIĀTA!

Aitu zak i *okerra*
jakin nai nikek nik,
ik zer ikusten dekan
begi ichu ortatik.

—Burla guchi emen egiñ
deabru kaikuba,
ortik ikusten diat
chanponen soñuba.—

TORIBIO ALZAGA.

EMAN, EMAN.

Andres-ek zor diozka
Pello Joġe-ri
Irurogei ta amar
Ezkutu lodi.
Begira oiri.
Bidian topatu ta
Zér dioten ordea
Biak alkarri:
—Agur, Pello Joġepe,
Illa onetan
Ere, nik zuri eziñ
Dirurik eman,
Iñonchotikan;
Baña ez luzetetsi,
Eukiko zaitut gogoan

Datorrenean.
 —Eskerrikasko, Andrēs,
 Zure pachara
 Juandan urte t' erdian
 Orretan zara...
 —Zér naizu bada,
 Egiti bat besterik
 Onetanche ezagun da
 Ni ez naizala.

MIGUEL ANTONIO IÑARRA.

II TA III.^{garren} SOMAKETAK.

Lau *azken-letrak* dira
 Gauza guztiz-mia;
Azken ta bi leenenak
 Oso pozgarria;
 Eta *guzti-guztia*
 Izen chit maitia.



Bi-gar arkitzen dira
 Lenengo biyetan;
Biya berriro dator
 Azkenengoetan;
 Guztiya loirik gabe
Iru itzgaiyetan.

(Askantzak *urrengo lumero edo liburuchuan*),
